



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VII. legegintzaldia

Iruña, 2007ko abenduaren 14a

39. ZK.

A U R K I B I D E A

B SAILA:

Foru lege proposamenak:

- Foru Lege proposamena, hauteskunde-gastuak gutxitzeari buruzkoa, Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteak aurkeztua ([3. or.](#)).

E SAILA:

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako trenbide zaharrak lehengoratu eta oinezkoentzako, kirol jardueretarako eta, oro har, bide berdeen moduan erabili ahal izateko plan bat presta dezan. Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkeztu du ([5. or.](#)).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Estatuko 39/2006 Legean eta Gizarte zerbitzuei buruzko abenduaren 14ko 15/2006 Foru Legean ezarritako prestazioak aplikatzean eskubideen subjektutzat eta onuraduntzat har daitezen, Nafarroako foru izaera zibila duten eta Nafarroako egoiliarak diren herritarrek ez ezik, Nafarroan bizi diren pertsona guztiak ere. Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkeztu du ([6. or.](#)).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da datozen urteetan nabarmen handitu ditzan osasun sistema publikoaren arloko gastua eta inbertsioa finantzatzeko aurrekontu-baliabideak. Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteak aurkeztu du ([7. or.](#)).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Legebiltzarrean aurkez dezan Nafarroako II. plan gerontologikoa. Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteak aurkeztu du ([9. or.](#)).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako osasun publikoaren aldeko plan estrategiko bat taxu dezan. Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteak aurkeztu du ([10. or.](#)).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da proposamen bat egin dezan Nafarroako Foru Komunitatean geriatriaren arloan dauden premiei buruz. Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteak aurkeztu du ([11. or.](#)).

- Mozioa. Horren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko Gobernuari eskatzen zaio Nafarroako Foru Komunitatearekiko duen jokabidea alda eta Nafarroako herritarren borondatea errespetatzea. Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak aurkeztu du (12. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da interes publikorako kaltegarritzat deklaratzan Iruña-Logroño autobiarri buruzko administrazio egintzak, zeinen bidez aldatu ziren autobia hori eraikitze, zaintze eta ustiatze kontratuaren klausulak. Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak aurkeztu du (13. or.).

F SAILA:

Galderak:

- Galdera, Plazaolako bidea oinezkoentzako eta kirol-erabileretarako prestatzeko lanak amaitzeko aurreikuspenei buruzkoa, Aitor Etxarri Pellejero jaunak egina (14. or.).
- Galdera, Bideko Ama Birjina Ospitalean haurrentzako telebista-kanal bat jartzeko Antena 3 telebistarekin egindako akordioari buruzkoa, Maiorga Ramírez Erro jaunak egina (15. or.).
- Galdera, jakiteko Nafarroako Gobernuko lehendakaria bat ote datorren Hezkuntza kontseilariak Iruñeko errotilazioari buruz eginiko adierazpenekin eta adierazpen horiek babesten dituen. Erretiratutako galdera (15. or.).

B saila:
FORU LEGE PROPOSAMENAK

Foru Lege proposamena, hauteskunde-gastuak gutxitzeari buruzkoa.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2007ko abenduaren 10ean egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako foru eraentza berrezarri eta hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.b) artikulua aitortzen dion legegintzarako ekimena erabiliz, Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteak hauteskunde-gastuak gutxitzeari buruzko Foru Lege proposamena aurkeztu du.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 147. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

1. Hauteskunde-gastuak gutxitzeari buruzko Foru Lege proposamena Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

2. Foru lege proposamen hori Nafarroako Gobernura igortzea, Erregelamenduko 147. artikuluan ezarritako ondorioetarako.

Iruñean, 2007ko abenduaren 10ean

Jarduneko Lehendakaria: Jesús Javier Marcotegui Ros

Hauteskunde-gastuak gutxitzeari buruzko Foru Lege proposamena**ZIOEN AZALPENA**

Azaroaren 17ko 16/1986 Foru Legeak 43. artikuluan ezartzen du Nafarroako Parlamenturako hauteskundeetan alderdi politikoek, koalizioek eta abarrek beren hauteskunde-gastuetarako daukaten muga. Muga horren zenbatekoa zehazteko, Nafarroako zuzenbidezko populazioa osatzen duten biztanleen kopurua 40rekin biderkatuz lortzen den emaitza ezartzen du. Hurrengo idatzizatiak adierazten du datu hori pezeta iraunkorretan ulertuko dela, eta Nafarroako Parlamenturako hauteskundeetarako deialdi bakoitza egitean eguneratuko dela.

Ekonomia eta Ogasun kontseilariaren apirilaren 3ko 98/2007 Foru Aginduaren bitartez, zeinaren bidez ezartzen baitira Nafarroako Parlamenturako 2007ko hauteskundeetara aurkeztu diren alderdi politikoek, federazioek, koalizioek eta hautesle-elkarteek egin ahal dituzten hauteskunde-gastuen muga eta hauteskunde-jardueren ondoriozko dirulaguntzen zenbatekoa, ezartzen zen 335.690 euro zela hautagaitza bakoitzak bere hauteskunde-gastuak ordaintzeko erabil zezakeen gehieneko kopurua.

Kopuru hori gehiegizkotzat jotzen da (0,56 euro biztanle bakoitzeko) hauteskunde-kanpaina bat egiteko. Hauteskunde-kanpainek gero eta antza handiagoa daukate besterik gabeko publizitate-kanpaina batekin, hauteskundeetara aurkeztu diren hautagaitza guztien programak eta proposamenak ezagutzeko modua nafarrei ematearen funtsezko helburuarekin baino.

Hori horrela dela argi ikusi ahal izan da, ezinezkoa gertatu baita herritarrei zuzenduriko hauteskunde-proposamen ezberdinak kontrajartzea hautesle guztiei programak berdintasun-baldintzetan jakinarazteko neurrien bitartez; horrela, Nafarroako Parlamenturako azken hauteskunde hauek ez da eztabaida bakar bat egin Gobernuako lehendakari izateko hautagai guztiak bildu diren korik.

Beharrezkoa ez den hauteskunde-gastu bat murrizte aldera, eta hauteskunde-hautagaitza ezberdinen arteko eztabaida publikoak sustatze aldera, horrela haien hauteskunde programak eta proposamenak kontrajarri ahal izateko, honako proposamen hau aurkeztu dugu:

1. artikulua

Nafarroako Parlamenturako hauteskundeak arautzen dituen azaroaren 17ko 16/1986 Foru Legeko 43. artikulua honako testu hau izanen du:

“1. Nafarroako Parlamenturako hauteskundeetan, alderdi politiko, federazio, koalizio edo hautesle-elkarte bakoitzak hauteskunde-gastuetarako izanen duen muga izanen da hauteskunde-deialdi

bakoitzeko errolda indarduneko hautesle-kopurua 0,42rekin biderkatuz lortzen den emaitza. Ezein alderdi politikok, federaziok, koaliziok edo hautesle-elkartek ezin izanen du egin muga hori gainditzeko duen hauteskunde-gasturik”

“2. Aurreko idatz-zatian aipaturiko kopurua euro iraunkorretan zehaztua egonen da. Ekonomia eta Ogasun kontseilariaren foru agindu baten bidez zehaztuko da kopuru eguneratua, hauteskundee-tarako deialdia egin eta ondorengo bost egunetan.”

2. artikulua.

Nafarroako Parlamenturako hauteskundeak arautzen dituen azaroaren 17ko 16/1986 Foru Legeko 43. artikuluari beste idatz-zati bat gehituko zaio, eduki hau izanen duena:

“3. Erregelamendu bidez ezarriko dira beharrezkoak diren neurriak, aurkezturiko hautagaitzen artean hauteskunde-kanpainan zehar hauteskunde-eztabaidak sustatzeko, behar diren bitartekoak ipiniz eta hedabide guztiei eztabaida horien berri emateko modua emanez, hautagaitza ezberdinek Nafarroako Parlamenturako hauteskundeetara aurkeztu dituzten proposamenen zabalkunderik handiena eta haien arteko eztabaida ahalbidetze aldera.”

Azken xedapena

Foru Lege honek indarra hartuko du Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitara ematen den egunean bertan.

E saila:

JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako trenbide zaharrak lehengoratu eta oinezkoentzako, kirol jardueretarako eta, oro har, bide berdeen moduan erabili ahal izateko plan bat presta dezan.

NAFARROA BAI PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2007ko abenduaren 10ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkezturiko mozio hau: Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako trenbide zaharrak lehengoratu eta oinezkoentzako, kirol jardueretarako eta, oro har, bide berdeen moduan erabili ahal izateko plan bat presta dezan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2007ko abenduaren 10ean

Jarduneko Lehendakaria: Jesús Javier Marcotegui Ros

MOZIOAREN TESTUA

Patxi Zabaleta eta Maiorga Ramírez Nafarroa Bai parlamentu-taldeko eledunek, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako mozioa aurkeztu dute, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozka dadin.

Zioak:

Jada erabiltzen ez diren trenbideen trazadura zaharrak bide berde gisa erabiltzea, oinezkoentzako eta kirol erabilerarako, iraganaren lekukoak izateaz gain, turismoaren eta ingurumenaren pizgarri garrantzitsua da. Jarduera batzuk egin dira, baina neurri batean bukatu gabe geratu dira. Batzuetan baliabideak lortu dira Europako eta Estatuko funtsetatik, eta kasu batzuetan baliabide propioak ere erabili dira.

2007. urtean, beharrezkoa da Nafarroak helburu batzuk eta programa bat izanen dituen plangintza bat proposatzea, baita plangintza horri baliabide batzuk esleitzeko konpromisoa hartzea ere. Halaber, beharrezkoa da edozein errezelo edo hitzarmenak gaingitzea, eta ibilbide hauek beren bide izaeragatik eta beren izenak dioten moduan "lurralde artekoak" direnez, antolamenduzko errealitatea egokitzea errealitate fisiko eta sozialera, eta, horren ondorioz, beharrezkoak diren itunak sinatzea baliabide horien erabilera, mantentzea eta ustiapena logikoa izan dadin.

Hori dela-eta, parlamentu-talde honek ondoko erabaki proposamena aurkeztu du:

1. Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako trenbide zaharrak lehengoratu eta oinezkoentzako, kirol jardueretarako eta, oro har, bide berdeen moduan erabili ahal izateko plan bat presta dezan eta beste erabilera batzuk dituzten bideentzat alternatibak bila ditzan.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Plazaolaren plan integral bat presta dezan, udalez gaingiko eragina izanen duena, lehenago Irurtzundik Gipuzkoako mugarako zatian eginikoa hartzeaz gain, Nafarroako lurraldeko ibilbide osoa, Iruñetik hasita Gipuzkoako mugaraino, hartuko duena.

Halaber, premiatzen du erabilerari eta mantentze-lanei buruzko hitzarmen bat egin dezan Gipuzkoako Foru Aldundiarekin, ibilbide beraren beste zati baten titularra baita, Nafarroako muga eta Gipuzkoa artekoarena, alegia.

3. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Bidasoako trenbide zaharra, Elizondotik Gipuzkoako mugara doana, lehengoratzeko eta aipatu erabileretarako egokitzeko lanak egin ditzan bere osotasunean Endar-

latzan, eta erabilerari eta mantentze-lanei buruzko hitzarmen bat egin dezan Gipuzkoako Foru Aldundiarekin, ibilbide horren Irun arteko zatiaren titularra baita.

4. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du nafar-euskal trenbide zaharra, Lizarratik Gasteizera doana, lehengoratzeko eta aipatu erabileretarako egokitzeko lanak egin ditzan bere osotasunean, eta erabilerari eta mantentze-lanei buruzko hitzarmen bat egin dezan Arabako Foru Aldundiarekin, ibilbide horren Gasteiz arteko zatiaren titularra baita.

5. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du "Tarazonica" izenez ezagutzen den trenbide zaharra, Tuteratik Tarazonara doana, lehengoratzeko eta aipatu erabileretarako egoki-

tzeko lanak egin ditzan bere osotasunean, eta erabilerari eta mantentze-lanei buruzko hitzarmen bat egin dezan Aragoiko Gobernuarekin, ibilbide horren Tarazona arteko zatiaren titularra baita.

6. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du "El Iratí" bezala ezaguna den Iruñetik Agoitzera zihoan trenbide zaharra lehengoratzeko eta lehen aipatu erabileretarako egokitzeko plan bat presta dezan, eta udalez gaindiko eragina izanen duen plan bat eta trenbidea lehengoratzeko, erabiltzeko eta mantentzeko proiektua edo proiektuak egin ditzan.

Iruñean, 2007ko azaroaren 23an

Foru parlamentariak: Patxi Zabaleta Zabaleta eta Maiorga Ramírez Erro

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Estatuko 39/2006 Legean eta Gizarte zerbitzuei buruzko abenduaren 14ko 15/2006 Foru Legean ezarritako prestazioak aplikatzean eskubideen subjektutzat eta onuraduntzat har daitezen, Nafarroako foru izaera zibila duten eta Nafarroako egoiliarak diren herritarrak ez ezik, Nafarroan bizi diren pertsona guztiak ere.

NAFARROA BAI PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2007ko abenduaren 10ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkezturiko mozio hau: Nafarroako Gobernua premiatzen da Estatuko 39/2006 Legean eta Gizarte zerbitzuei buruzko abenduaren 14ko 15/2006 Foru Legean ezarritako prestazioak aplikatzean eskubideen subjektutzat eta onuraduntzat har daitezen, Nafarroako foru izaera zibila duten eta Nafarroako egoiliarak diren herritarrak ez ezik, Nafarroan bizi diren pertsona guztiak ere.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2007ko abenduaren 10ean

Jarduneko Lehendakaria: Jesús Javier Marcotegui Ros

MOZIOAREN TESTUA

Patxi Zabaleta eta Maiorga Ramírez Nafarroa Bai parlamentu-taldeko eledunek, Legebiltzarreko Erregelamenduko 195. artikulua babesean, honako mozioa aurkeztu dute, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozka dadin. Mozioa azaroaren 22an eta 23an Legebiltzar honen Osoko Bilkuran eztabaidatutako jabelduraren ondorioa da.

Zioak:

Estatuko 39/2006 Legearen 5. artikulua honako ezaugarriak du: "Espainiarrak dira lege honetan ezarritako eskubideen tituluak."

Bestalde, 15/2006 Foru Legearen 4. artikulua ezaugarriak du gizarte zerbitzuen hartzaile direla Europar Batasuneko kide diren estatuetak nazionalitatea izan eta Nafarroako edozein udaletan erroldaturik dauden guztiak eta erbesteratu, errefuxiatu edo aberrigabe diren atzerriarrak. Foru lege horretako 5. artikulua xedatzen duenez, gizarte zerbitzuen sistema gidatzen duen lehenbiziko printzipioa unibertsaltasuna da, hau da, gizarte zerbitzuez biztanle guztiek baliatzeko duten

eskubidea, berdintasun, ekitate eta birbanaketaren zuzentasun irizpideen arabera.

Estatuko administrazioaren eta Nafarroako Foru Komunitatearen Lankidetzak Batzordeak 2007ko azaroaren 7an hartutako erabakian (Nafarroako Gobernuak Aldizkari Ofizialean) nagusiak azaroaren 12an emandako 573/2007 ebazpenaren bitartez argitaratua, 2007ko azaroaren 14ko 142. Nafarroako Aldizkari Ofizialean) ezartzen da, besteak beste; "Foru Komunitateak Estatuari pagatzen dion diru-ekarpena gutxituko du, Estatuko arautegiak bermatu eta zehazten duen gutxieneko mailari dagokiona adina, Komunitatean bizi den onuradun bakoitzeko".

Araubide-ezberdintasuna, ez bakarrik prestazioei dagokienez, baizik eta, batez ere, eskubidearen onuradun edo subjektu direnei dagokienez, bai eta horrek foru araudiaren aplikazioan zeharka izan lezakeen eragina ere, direla-eta, Nafarroa Bai parlamentu-taldeak, kontuan harturik nazioarteko eskubide-adierazpenetan ezarritako pertsonen elkartzaren eta berdintasun printzipioak, hein batean Konstituzioan jasoak daudenak eta 15/2006 Foru Legeko printzipio gidariak ere osatzen dituztenak, ekimen bat aurkeztu du, aplikazio-printzipioek pertsona guztiak aintzat har ditzaten, haien nazionalitatea edozein delarik ere —egonez gero—,

baita finantzen ikuspegitik Nafarroarentzat zama bat izan badaiteke ere.

Irizpide horren euskarria da medikuntza publikoaren alorreko jarduna, eta gure ustez, irizpide hori Parlamentuak exekutiboaren jarduerari begira eredu gisa adierazita uztea edo interpretatzea ezinbestekoa da.

Hori dela-eta, parlamentu-talde honek ondoko erabaki proposamena aurkeztu du:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak Gizarte Gaietako Departamentua premiatzen du Estatuko 39/2006 Legean eta Gizarte zerbitzu-ei buruzko abenduaren 14ko 15/2006 Foru Legean ezarritako prestazioak aplikatzean eskubideen subjektutzat eta onuraduntzat har daitezen, Nafarroako foru izaera zibila duten eta Nafarroako egoiliarak diren herritarrak ez ezik; Nafarroan bizi diren pertsona guztiak, barne harturik legeztaturiko egoeran dauden etorkinak, legeztatze-izapideetan ari diren etorkinak, legeztatu gabeko etorkinak, aberri-gabekoak, dokumentaziorik gabeko pertsonak, pasadizokoak eta helbide ezagunik gabeko pertsonak.

Iruñean, 2007ko azaroaren 23an

Foru parlamentariak: Patxi Zabaleta Zabaleta eta Maiorga Ramirez Erro

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da datozen urtetan nabarmen handitu ditzan osasun sistema publikoaren arloko gastua eta inbertsioa finantzatzeko aurrekontu-baliabideak.

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-NAFARROAKO EZKER BATUA FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2007ko abenduaren 10ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteak aurkezturiko mozio hau: Nafarroako Gobernuak premiatzen da datozen urtetan nabarmen handitu ditzan osasun sistema publikoaren arloko gastua eta inbertsioa finantzatzeko aurrekontu-baliabideak.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdikoa hamabietan.

Iruñean, 2007ko abenduaren 10ean

Jarduneko Lehendakaria: Jesús Javier Marcotegui Ros

MOZIOAREN TESTUA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du, hurrengo Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko. Mozio hau 2007ko azaroaren 22ko Osoko Bilkurak eztabaidatutako jabeldura baten ondorioa da.

Mozioa

Nafarroakoa Gobernuak ez dio beharrezkoa den lehentasuna eman osasun sistema publikoaren finantzaketari. Baliabide falta hori gertatu da, oinarritzko zerbitzu publikoa eta gizarte ongizateko sistema eraginkor eta modernoan ardatz nagusien osagarrietako bat den arren.

Gastu eta inbertsio gero eta handiagoak behar dira jada ezagunak diren arrazoiengatik, hala nola biztanleriaren zahartzea, gaixotasun kronikoen hazkundera, bizi-itxaropena luzatzea, biztanleriaren hazkundera edo farmazia gastuaren areagotzea.

Faktore horiek Europako gizarte guztiak eta Estatuko autonomia erkidego guztiak ukitzen dituzte, baita Nafarroa ere.

Azken urteotan atzera egiten ari gara eta aldentzen, Europako ratioetatik ez ezik, baita Estatuko ratioetatik ere.

Horren frogagarri dugu Ekonomia eta Ogasun Ministerioak osasun gastuari buruz eginiko txostena, zeina berriki eman baita ezagutzera.

2005ean, Nafarroan, osasun gastu publikoa BPGaren % 4,53 zen, eta Estatuan, aldiz, batez beste, % 5,05. BPGaren puntu erdi baino gehiagoko aldea; horrek, eurotara ekarrita, esan nahi du 2005ean, Nafarroako aurrekontuetan, 75 milioi euro inguru falta zirela Estatuko batez bestera iristeko.

Baina kezkarriena da datuek erakusten dutela Estatu guztian osasun gastuak goranzko joera duela eta Nafarroan, aldiz, geldituta dagoela edo, zenbait urtetan, atzera egin duela.

Estatuan, batez beste, gastu hori % 4,72koa izan zen 1999an, eta % 5,05ekoa 2005ean; Nafarroan, berriz, % 4,68tik % 4,53ra jaitsi gara.

BPG erreferentzia hartuta osasun gastuaren datuak hain direnez eztabaidaezinak, Nafarroako Gobernuak egin duen hautua izan da osasun gastuaz aritzean pertsona bakoitzeko gastu-zenbatekoa aipatzea. Nafarroak herritarreko duen BPGa Estatukoak duenaren gaindi dago eta, beraz, ziu-rrenik, zenbatekoak Nafarroako osasunaren aldekoagoak izanen dira.

Hala ere, Nafarroan hainbestekoa da azken urteotan finantzaketa publikoak osasun arloan izan duen bulkada falta non pertsona bakoitzeko gastuaren estatistikek ere egoera kezkarria erakusten baitigute.

Horrela, Estatuan, osasunaren arloan pertsona bakoitzeko izan den gastuak % 51 egin du gora (721 eurotik 1091 eurora pasatu da), eta Nafarroan % 34,31 baino ez (878 eurotik 1204 eurora pasatu da).

1999an inongo autonomia erkidegok ez zuen Nafarroa gainditzen (Nafarroak 878 euroko gastua zuen eta hurrengoa EAE zen, 791 euroekin); 2005ean, ordea, gure gaindi zeuden Aragoi, Asturias, Kantabria, Errioxa eta Melilla, eta ia gure parean, berriz, Extremadura eta EAE.

Horrenbestez, ez da harritzekoa Nafarroan gure osasun sistema publikoaren arazoez gora egitea, sistemak kalitatea galtzea eta herritarren kexak gero eta gehiago izatea.

Hori dela-eta, IUN/NEBren foru parlamentarien elkarteak ondoko erabaki-proposamena aurkeztu du:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernu premiatzen du datozen urteetan nabarmen handitu ditzan osasun sistema publikoaren arloko gastua eta inbertsioa finantzatzeko aurrekontu-baliabideak, halako gisan non legegintzaldi hau amaitzean Nafarroako osasun zerbitzu publikoan egiten den gastuak eta inbertsioak gutxienez BPGaren % 6,5 egiten duen.

Iruñean, 2007ko azaroaren 28an

Eleduna: Ion Erro Armendáriz

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Legebiltzarrean aurkez dezan Nafarroako II. plan gerontologikoa.

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-NAFARROAKO EZKER BATUA FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2007ko abenduaren 10ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteak aurkezturiko mozio hau: Nafarroako Gobernua premiatzen da Legebiltzarrean aurkez dezan Nafarroako II. plan gerontologikoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietarako Batzordean eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hama-bietan.

Iruñean, 2007ko abenduaren 10ean

Jarduneko Lehendakaria: Jesús Javier Marco-tegui Ros

MOZIOAREN TESTUA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du Gizarte Gaietako Batzordean:

Zioen azalpena:

1997. urtean, Nafarroako Gobernuak Nafarroako I. plan gerontologikoa onetsi zuen. Plan horrek zenbait printzipio, oinarri juridiko eta jarduerak

eredu jasotzen zituen eta 2000. urtera arteko iraupena zuen.

2005 eta 2006 urteetan egoeraren eta eskaeraren azterketa eta diagnosis egin dira, plan gerontologiko berria prestatze aldera. Aurreikuspenen arabera, plan gerontologikoak prest egon behar zuen 2007ko azarorako.

Une honetan, arartekoak eginiko “Gure zaharren eskubideei buruzko txosten bereziak” nabarmentzen du adin guztietako pertsonen beharriak asebetetzeko betebeharra, baina lehentasuna eman behar zaiela adinak behartzen dituen zinketei.

Funtsezkoa da gure zaharrak erkidegoan integraturik egotea, une oro zaharren ordezkarien parte hartzea izanen duten jardueren, programen eta proiektuen bidez. Plan gerontologikoak erantzuna eman behar die zaharren arloko nazioko nahiz nazioarteko planei. Halaber, kontuan hartu behar da pertsona-talde hau anitza eta askotarikoa dela, eta, horrenbestez, eskaintzen diren zerbitzuek anitzak izan behar dute.

Hori dela-eta, ondoko erabaki proposamena aurkeztu dugu:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du 2008ko lehen hiruhilekoan Gizarte Gaietako Departamentuak Nafarroako II. plan gerontologikoa aurkez dezan Parlamentuan.

Iruñean, 2007ko azaroaren 26an

Foru parlamentaria: Ana Figueras Castellano

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako osasun publikoaren aldeko plan estrategiko bat taxu dezan.

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-NAFARROAKO EZKER BATUA FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2007ko abenduaren 10ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Nafarroako osasun publikoaren aldeko plan estrategiko bat taxu dezan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2007ko abenduaren 10ean

Jarduneko Lehendakaria: Jesús Javier Marcotegui Ros

MOZIOAREN TESTUA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu dio Osoko Bilkurari, 2007ko azaroaren 20an Parlamentuko Osoko Bilkuran eztabaidaturiko jabelduraren ondorio gisa.

Zioen azalpena:

Osasuna da bai eztabaida politikoan bai herritarrarengan interes gehien pizten duten zerbitzu publikoetako bat. Izan ere, pertsona gehienok, gure bizitzako unerik batean, osasun-etxe publikoetan artatuak izanen gara.

Ezker Batukook osasun-sisteman aurkitzen ditugun problemek ohartarazten dugunean, gure ekimenek ez dute inola ere bilatzen osasun-zerbitzuak Nafarroan esan nahi duen guztiaren kontra joatea. Helburua da logika politikoan kontrajartzea Nafarroako osasun-sistemak aitzindari izaten segitzeko beharrezkoak diren neurri eta aurrekontuak antolatzeko moduari buruz ditugun iritziak.

Urte hauetan zehar Gobernuak arazoak aurrez ikusi ez izanak ondorio gisa ekarri ditu itxaron zerrendak, osasun-etxe berrietan inbertsiorik ez egitea, langile gehiagoren kontratazioa eta ordain-

sariei buruz profesionalek azaldutako desadostasuna, eta horiexek izan dira azken urteotan egin izan dugun kritika politikoaren alderdirik aipagarrienak. Horren aurrean, Departamentuak ez du egin proposamenik denboraren eta moduaren ikuspegitik zehatza denik.

Aurretik azaldutako guztiagatik, ondoko erabaki proposamena aurkeztu dugu:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Osasun Departamentuak Nafarroako osasun publikoari buruzko plan estrategiko bat presta dezan, osasun-sistemak bere erabiltzaileei eskaini behar dien zerbitzua planifikatu eta lehentasunen arabera antolatuko duena. Plan horrek jaso beharko ditu:

- Oinarrizko osasun-laguntza hobetzeko proiektua. Osasun-arloko profesional bakoitzeko osasun txartel indibidualen kopurua murriztea. Iruñeko eta Iruñerriko osasun-etxeetan egin beharrekoak diren inbertsioak zehaztu eta planifikatzea, bai eta Foru Komunitatearen gainerako lurraldeetan, hirigintza-jarduketa berrien ondorioz, egin beharrekoak ere.

- Osasun-arazo berriek sortzen dituzten erroren erantzuteko ekintza plan bat, modu multidiziplinario batean tratatuak izateko, eritasunek horretara behartzen dutenean. Zehaztu beharra dago zein kasutan den beharrezkoa espezialista ezberdinek osaturiko lan-talde bat arduratzea gaixoari zuzendutako laguntzaz.

- Buru-osasunaren arloan gaixoak artatzeko bitarteko eta espezialista kliniko gehiago erabiltzea.

- Osasun-arloko prestazioen zorro berri bat prestatzea.

- Zaharrentzako osasun-laguntza hobetzea. Langile espezializatuek, gerontologiek, emandakoa izan dadila.

- Ikerketari sostengu tinkoa ematea.

- Larrialdi-zerbitzuetako beharrian berriei egokituriko proposamenak.

- Medikamentuaren erabilera arrazionalerako politikak.

- Berariazko osasun-politikak, mendekotasun-egoeretan gizarte-zerbitzuekin koordinatuta eginkoak.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du sei hilabeteren buruan plana Parlamentuan aurkez dezan. Plana baino lehena-go, ebaluazio bat eskaini beharko da, langile, bitarteko material, baliabide eta inbertsioen ikus-

pegitik zer-nolako egoeratik abiatzen garen zehaztuko duena.

Iruñean, 2007ko azaroaren 26an

Foru parlamentaria: Ana Figueras Castellano

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da proposamen bat egin dezan Nafarroako Foru Komunitatean geriatriaren arloan dauden premiei buruz.

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-NAFARROAKO EZKER BATUA FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2007ko abenduaren 10ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteak aurkezturiko mozio hau: Nafarroako Gobernua premiatzen da proposamen bat egin dezan Nafarroako Foru Komunitatean geriatriaren arloan dauden premiei buruz.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osasun Batzordean eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2007ko abenduaren 10ean

Jarduneko Lehendakaria: Jesús Javier Marcotegui Ros

MOZIOAREN TESTUA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du Osasun Batzordean:

Zioen azalpena:

Berriki izan dugu arartekoak Nafarroako zaharren eskubideei buruz eginiko txostenaren edukia-

ren berri. Bertan esaten denez, beharrezkoa da Osasun Departamentuak laguntza geriatrikoko osasun-zerbitzuak sendotzea, zaharren osasunaren alorrean detektatzen diren beharrezkoei erantzun ahal izateko moduko neurrian zerbitzu horiek ugarituz. Funtsezkoa da langile, baliabide ekonomiko eta material gehiago bideratzea pertsona zaharrek berariazkoak dituzten eritasunen prebentzio eta sendaketarako, eritasun horiek jotako pertsonen errehabilitaziorako eta haiei laguntza emateko.

Zaharrek gehien estimaturiko eta eskaturiko gauzetako bat da geriatrek emandako laguntza espezializatua, hala zahar-etxeetan nola osasun-etxeetan.

Azaldutako arrazoiengatik, ondoko erabaki-proposamena aurkeztu dugu:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du proposamen bat egin dezan, hiru hilabeteko epean, Foru Erkidegoan dauden geriatría-arloko beharrezkoei buruz.

Nafarroako Parlamentuak Gobernua premiatzen du hiru hilabeteko epean Osasun eta Gizarte Gaietako Departamentuen arteko lan-talde bat osa dadin, laguntza soziosanitarioaren arloan Parlamentuari Nafarroarentzako eredu bat proposatzeko, sei hilabeteren buruan.

Iruñean, 2007ko azaroaren 26an

Foru parlamentaria: Ana Figueras Castellano

Mozioa. Horren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko Gobernuari eskatzen zaio Nafarroako Foru Komunitatearekiko duen jokabidea alda eta Nafarroako herritarren borondatea errespetatzea.

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2007ko abenduaren 10ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak aurkezturiko mozio hau: Euskal Autonomia Erkidegoko Gobernuari eskatzen zaio Nafarroako Foru Komunitatearekiko duen jokabidea alda eta Nafarroako herritarren borondatea errespetatzea.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2007ko abenduaren 10ean

Jarduneko Lehendakaria: Jesús Javier Marcotegui Ros

MOZIOAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 195, 196 eta 197. artikuluetan xedatuaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du, Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkuran eztabaidatu eta onesteko. Horren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko Gobernuak premiatzen da alda dezan Nafarroako Foru Erkidegoarekiko bere jokabidea, eta errespetatzea dezan Nafarroako herritarren borondatea, erkidego politiko bereki eta bereizi bateko herritar izatea erabaki baitute.

Zioak:

2007ko azaroaren 13ko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu da 175/2007 Dekretua, Euskal Autonomia Erkidegoko Oinarritzko Hezkuntzaren curriculum sortu eta ezartzekoa, Hezkuntzari buruzko 2/2006 Lege Organikoko eta 1513/2006 nahiz 1631/2006 Errege Dekretuetako aginduen garapen modura, haietan ezartzen bai-

tziren Lehen eta Bigarren Hezkuntzako gutxieneko irakaskuntzak.

Aipaturiko dekretuko aitzinsolasean asmo-adi-erazpen batzuk egiten dira, jarraian xedatzen denaren argigarri. Alabaina, xedapen horiek, beren edukiarengatik eta esanahiarengatik, esku-sartze nabarmena dira Nafarroako Foru Komunitatearen errealitate politikoan. Hizpide ditugun xedapenak honako hauek dira:

26036. orrialdeko hirugarren lerrokada:

“Horiek horrela, curriculumaren ikuspegi oso, askotariko eta ireki bat emateko asmoa du dekretu honek, Euskal Herriaren ikuspegi berezi eta berrazkoa abiapuntutzat hartuta eta hura Arabak, Bizkaiak, Gipuzkoak, Lapurdik, Nafarroa Garaiak, Nafarroa Behereak eta Zuberoak osatutako lurralde-eremua dela ulertuta.”

Gure ustez, erkidego politiko ezberdinen arteko elkarrekiko errespetua ezinbestekoa da demokrazian jarduteko, eta bide bakarra, bestalde, herritar guztientzako harreman estu eta probetxuzkoak ezartzeko. Nafarroako Foru Komunitateko errealitate instituzional eta politikoa ez aitortzeak eta, azken finean, bertako herritarren borondatearekiko begirunerik ezak amaitu egin behar dute, guztiok nahi ditugun auzo-harreman onak sustatzeko. Hori guztia dela-eta, Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak ondoko mozioa aurkeztu du, Parlamentuaren Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko:

Nafarroako Parlamentuak Euskal Autonomia Erkidegoko Gobernuari eskatzen dio alda dezala Nafarroako Foru Komunitatearekiko bere jokabidea eta Nafarroako herritarren borondatea errespetatzea, erkidego politiko bereki eta bereizi bateko kide izatea erabaki baitute, Espainiako herritarren osotasunarekin solidario, eta haiekin konpromiso batean elkarturik demokraziaren bilaketan, sakontzean eta tinkotzean, bai eta herritarren eskubideenean ere.

Iruñean, 2007ko azaroaren 28an

Eleduna: Roberto Jiménez Alli

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da interes publikorako kaltegarritzat deklaratu ditzan Iruña-Logroño autobiar buruzko administrazio egintzak, zeinen bidez aldatu ziren autobia hori eraikitzeko, zaintzeko eta ustiatzeko kontratuaren klausulak.

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2007ko abenduaren 10ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak aurkezturiko mozio hau: Nafarroako Gobernua premiatzen da interes publikorako kaltegarritzat deklaratu ditzan Iruña-Logroño autobiar buruzko administrazio egintzak, zeinen bidez aldatu ziren autobia hori eraikitzeko, zaintzeko eta ustiatzeko kontratuaren klausulak.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Ekonomia eta Ogasun Batzordean eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2007ko abenduaren 10ean

Jarduneko Lehendakaria: Jesús Javier Marcotegui Ros

MOZIOAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak, Legebiltzarreko Erregelamenduari jarraikiz, honako mozio hau aurkeztu du, Ekonomia eta Ogasun Batzordean eztabaidatu eta bozkatzeko. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da urtarrilaren 29ko 97/2004 eta apirilaren 12ko 296/2005 Foru Aginduen babesean eginiko administrazio-egintzak, Iruña-Logroño autobia eraiki, zaindu eta ustiatzeko herri lanen emakidarako kontratuko klausulak aldatu zituztenak, interes publikorako kaltegarritzat deklaratu ditzan. Presako bidetik izapidetzea eskatzen da.

Zioen azalpena:

Mozio honen bitartez kaltegarri deklaratu nahi diren egintza deuseztagarriak ez daude inola ere justifikatuta, eta Foru Komunitateari ia berrogeita

hamabost milioi euro gehiagoko zorra ekarri diote. Egintza horiek onuragarriak izan zitzaizkion enpresa emakida-hartzaileari, eta kaltegarriak diru publikoei. Azken horiek herritar guztien zergetan daukate iturburua.

Gogoan izanik badirela zenbait txosten juridiko, Comptos Ganberaren iritziaz gain, ahalbidetzen dutenak egintza horiek indarrik gabe uzteko saioa, parlamentu-talde honen iritziz aukera horiek erabili eta agortu egin beharra dago, herritarrei zama bidegabe bat gainetik kenduko bailiekete, inolako zalantzarik gabe.

Bestalde, aipaturiko foru aginduak, administrazio-egintza horiek hezurmamitzen dituztenak, ez ziren Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu.

Presako bidetik izapidetzearen eskaeraren arrazoiak honako hau da: mozioa onetsiz gero, Gobernuak epe bat bete behar du, egintzetako lehenbizikoaren kasuan urtarrilean amaitzen dena, kaltegarritasun-deklaraziorako eta ondorengo jurisdikzio-aurkatzerako. Hori guztia dela-eta, presako bidetik izapidetzeko aurkeztu dugu ondoko mozioa, Ekonomia, Ogasun eta Aurrekontu Batzordean eztabaidatu eta bozkatzeko:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du urtarrilaren 29ko 97/2004 eta apirilaren 12ko 296/2005 Foru Aginduen babesean eginiko administrazio-egintzak, Iruña-Logroño autobia eraiki, zaindu eta ustiatzeko herri lanen emakidarako kontratuko klausulak aldatu zituztenak, interes publikorako kaltegarritzat deklaratu ditzan. Egintza horien bitartez prezioak berrikus-ten dira, azken prezioaren kalkulurako eta obra hura uste baino lehen zerbitzuan jartzeagatik eman beharreko ordainaren kalkulurako. Halaber, Nafarroako Gobernua premiatzen du egintza horiek administrazioarekiko auzien jurisdikzio-ordenan aurkatu ditzan, aipaturiko deklarazioaren ondorio gisa.

Iruñean, 2007ko abenduaren 4an

Eleduna: Roberto Jiménez Alli

F saila:
GALDERAK

Galdera, Plazaolako bidea oinezkoentzako eta kirol-erabileretarako prestatzeko lanak amaitzeko aurreikuspenei buruzkoa.*AITOR ETXARRI PELLEJERO JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2007ko abenduaren 10ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Aitor Etxarri Pellejero jaunak aurkeztutako galdera, Plazaolako bidea oinezkoentzako eta kirol-erabileretarako prestatzeko lanak amaitzeko aurreikuspeni buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2007ko abenduaren 10ean

Jarduneko Lehendakaria: Jesús Javier Marcotegui Ros

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Aitor Etxarri Pellejero jaunak, Legebiltza-

rreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, Nafarroako Gobernu-ko kontseilari Corpas jaunak Kultura Batzordean ahoz erantzun dezan:

Zer aurreikuspen ditu departamentuak Plazaolako bidea oinezkoentzako eta kirol-erabileretarako prestatzeko lanak amaitzeko Larraun-Leitza zatian? Izan ere, ondokoak egitea falta da: a) Uitz eta Leitza artean dagoen tunela, "Tunel handia" izenez ezaguna, egokitzea; b) "Telleriako tunela" izena ezagutzen den tunela konpontzea, gaur egun hondatuta baitago; c) Zati hori sendotzea, egokitzea eta, kasua bada, erabilera Leitzako Udalar edota Plazaolaren partzuergoari lagatzea, eta hala betetzea udalez gaindiko planetan eta 90ko hamarkadako lehen urteetatik garatutako beste proiektuetan ezarritakoa.

Iruñean, 2007ko azaroaren 23an.

Foru parlamentaria: Aitor Etxarri Pellejero

Galdera, Bideko Ama Birjina Ospitalean haurrentzako telebista-kanal bat jartzeko Antena 3 telebistarekin egindako akordioari buruzkoa.

MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2007ko abenduaren 10ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkeztutako galdera, Bideko Ama Birjina Ospitalean haurrentzako telebista-kanal bat jartzeko Antena 3 telebistarekin egindako akordioari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2007ko abenduaren 10ean

Jarduneko Lehendakaria: Jesús Javier Marcotegui Ros

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Errok, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuari, Osoko Bilkuran ahoz erantzun diezaion:

Foru parlamentari honek jakin du Osasun kontseilari Kutz andreak hitzarmen bat sinatu duela Antena 3 telebistarekin Bideko Ama Birjina ospitalean haurrentzako telebista kate bat jartze aldera.

Hori dela eta, parlamentari honek hauxe jakin nahi du:

Hitzarmen horren baldintzak eta Antena 3 telebistarekin sinatzeko arrazoiak, eta ez beste telebista kateren batekin.

Iruñean, 2007ko azaroaren 27an

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

Galdera, jakiteko Nafarroako Gobernuko lehendakaria bat ote datorren Hezkuntza kontseilariak Iruñeko errotulazioari buruz eginiko adierazpenekin eta adierazpen horiek babesten dituen.

ERRETIRATUTAKO GALDERA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2007ko abenduaren 10ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Erretiratutzat jotzea José Luis Izco Biarge jaunak egindako ahozko galdera, jakiteko Nafarroako Gobernuko lehendakaria bat ote datorren Hezkuntza kontseilariak Iruñeko errotulazioari buruz eginiko adierazpenekin eta adierazpen

horiek babesten dituen. Galdera hori 2007ko abenduaren 4ko 35. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2007ko abenduaren 10ean

Jarduneko Lehendakaria: Jesús Javier Marcotegui Ros

HARPIDETZAREN PREZIOA ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA Urtebete 45,15 euro Aldizkari Ofizialaren prezioa, aleko 1,18 » Bilkura Egunkariaren prezioa, aleko 1,34 »	IDAZKARITZA ETA ADMINISTRAZIOA NAFARROAKO PARLAMENTUA «Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala» Navas de Tolosa, 1 31002 IRUÑA
--	---